

GIG 36

BARATZAZARRETA KO HEGAL-IRRISTATZEA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Baratzazarrak izeneko lekua itzelezko lur-irristatzea gertatzearen ondorioz sortu da (8 hektareako azalera du), eta argi eta garbi bereizten da itsaslabarrean, landaretzaz estalita baitago erabat. Mendi-hegalaren irristatzeak kono-itxura du goitik begiratuta, eta 158 metroko altueran hasten da, itsaslabarraren bazter-bazterrean. Irriatzearen frontea nabarmen ikusten da flysch formazioaren estratu bertikaletatik gora, luzetara 400 metro inguruan.

Mendi-hegalen irristatzea estratifikazio-planoek eraginda gertatzen da, kompetentzia handieneko geruzak kompetentzia txikienekoen gainean beherantz irristatzen direnean. Irriatze-prozesu geldo eta jarraitu bat sortzen du horrek, eta irristatze horren eraginez, leku batzuetan toles antiklinal ikusgarriak eta zartadura batzuk sortu dira; gerora, toles eta zartadura horietara moldatuta sortzen da, hain zuzen, arroka-masa higizteak eragiten duen deformazio geldo eta jarraitua. Bestalde, itsaslabarraren frontean *creeping* edo *narraste* deritzen irristatze-mota ere ikusten da zenbait lekutan, ederki gainera, irristatzen ari den masa horrek beherantz higizte horretan flysch formazioko estratu subertikalen gainean sorrarazia.

Baratzazarretako irristatze-eremua oso ezegonkorra da, ziur asko hiru faktore hauek tarteko direla: inguruko errekatxoek dakarten ur ugaria, geruzen okerdura handia, eta flyscha osatzen duten geruza-motak txandakatuta egotea. Pikoteko luizia ez bezala (eta albo-alboan dago hura), Baratzaazarretako irristatze-eremua landaretzaz estalita dago, eta horrek ere adierazten du oso pixkanakako irristatze-modu bat dela bertakoa eta denbora luzean gertatzen ari dela. Hori uste izateko beste arrazoi bat ere badago, gainera: inguru horretan bat-bateko luizi handi bat gertatu izanaren erreferentzia historikorik ez dagoela, hain zuzen.

NOLA BERTARATU

Autoa Elorriagako atsedenekuan utzi, eta bidean behera oinez izen bereko begiratokira joanda, edo bestela, irristatze-eremuan bertan egindako bidean behera marearteko zabalgunera jaitsita.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Tolesak eta *creeping*a ikusteko, marearteko zabalgunera jaitsi behar da, bidean behera. Elorriagako begiralekutik (IP E3), berriz, hegal-irristatze osoaren ikuspegi orokor bikaina dago.



Geruzak pixkanaka irristatzearen ondorioz sortutako tolesak eta zartadurak, gertutik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 557721 m / Y= 4793736 m / Alt.= 33 m



Creeping deritzon efektua, irristatze-eremuaren frontean.